



Azpeitiko Udala

AZPEITIKO UDALAREN ETA DENDARTEAN ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, AZPEITIKO HERRIAN TXIKIZKAKO MERKATARITZA SUSTATZEKO -2020. EKITALDIA-.

-Diru-laguntza izenduna bideratzeko hitzarmena-

Azpeitian, 2020ko maiatzaren 8an

BILDURIK

Alde batetik **NAGORE ALKORTA ELORZA**, NAN 72.471.832-M duena, Azpeitiko Udalaren alkate-udalburua, Udalbatza Osoak 2019ko ekainaren 13an hartutako erabakiaren arabera egintza honetan parte hartzeko ahalmena hartua.

Bestetik **AMADOR VITERI AGUINAGA**, NAN 41.074.503-E duena, Gipuzkoako merkataria, ostalaria, zerbitzu enpresa eta autonomoen elkartearen bilkura -DENDARTEAN- elkartearen presidentea (G-20736864).

Bi aldeek aitortzen diote elkarri agiri hau izenpetzeko eta jarduteko behar den gaitasun juridikoa eta honakoak azaltzen dituzte:

AURREKARIAK

Euskadiko Toki erakundeei buruzkoa den 2/2016 Legeak Azpeitiko Udalari barne merkataritza antolatzeko eta kudeatzeko ahalmena ematen dio. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, biltegi eta kalez-kaleko merkataritza antolatzeko eta kudeatzeko. Hor sartzen da, era berean, **txikizkako merkataritza planifikatzea eta antolatzea**, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzorua erabilerari erantzunez.



Udalbatzak **2020ko maiatzaren 5ean** egindako bilkuran Udalaren eta bere erakundeen diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen, eta bertan tokiko merkataritza sustatzeko eta bultzatzeko ekimenak babesteko lerro bat aurreikusi zen, honako helburu estrategikoekin: Tokiko merkataritzak biztanleriaren egonkortasunean duen garrantzia sustatzea; Udalerriko merkataritza-egituren modernizazioa bultzatzea, merkataritza-enpresa handien eta txikien arteko desorekak zuzentzeko eta, batez ere, lehia askeari eusteko, kontsumitzaileen mesedetan; Sektoreko eragile guztien lankidetzak bultzatzea eta merkataritzako jardunbide egokien esparru baten ezarpena sustatzea eta, azkenik, enpresa eta teknologia modernoek osatutako banaketa-sistema eta merkataritza-modu tradizionalak osatutakoa bultzatzea.

Plan Estrategikoaren bidez espresuki jaso da Azpeitian bulego tekniko bat ezartzea helburua, merkataritza-sektorearen aholkularitza eta kohesioa, eta udalerrian merkataritza behar bezala kudeatzeko programak gauzatzeko.

DENDARTEAN Elkartek, toki-merkataritza txikia sustatu eta indartzeko helburua duen elkarteen eta erakundeen arteko lankidetzaren kanal bat egituratu nahi du, sektoreari merkatuaren eskaera berrietara egokitzeko prozesuan laguntzeko. Aldi berean, Azpeitiko txikizkako merkataritza sustatu eta herri kontsumoa bultzatzea nahi du.

...Azken urteotan murriztu edo desagertu egin da toki mailako edo erkidego mailako erakundeen gaitasun normatiboa, banaketak egiteko modu berriak agertu dira, eta teknologia berriak sartu dira merkataritzaren eta zerbitzuen munduan, eta horrek guztiak tokiko ekonomiaren gainbehera eta bazterketa ekarri du. Tokiko ekonomia hau, gainera, atzerakoitzat eta modernizatetik urrundutakotzat ere jotzen dute hedabide generalistek, eta garapen ekonomikoaren etsaitzat ere kalifikatua izan da, zenbaitetan.

Egoera honek ekarri du krisi ekonomikoaren ondorioz txirotutako populazioak bere kontsumo-ohiturak aldatzea, eta ohiko merkataritzaren esparrutik alde egin izana.

Egoera honen ondorioak era larrian ari dira eragiten, ez bakarrik merkataritza sektoreari, baizik eta hirugarren sektore guztiak ere eragina jasan du, era batean edo bestean. Zerbitzuetan aritzen ziren negozio askok itxi egin behar izan dute, hiriburuetan kokatuak dauden kate handiek egiten dituzten eskaintzengatik. Baina kate horiek, merkataritza zentroek bezalaxe, ez dute bere enpresa-egoitza Gipuzkoan, ezta Euskal Autonomia Erkidegoan ere, eta itzulkin fiskalaren ondorioz sortzen zen finantza-fluxuak ere eragina jasan du.

Azken ondorioa da Azpeitian eta udalerri askotan hurbileko merkataritza edo zonala dela nagusi, eta beharrezko dela nukleo handiagoetara edota Merkataritza Zentroetara joatea, produktu espezializatuen erosketak egiteko.

Herri mailako ekintzaile txiki horien esparrua desagerrarazteak oso ondorio negatiboak ditu Azpeitiko, Gipuzkoako eta, orokorrean, Euskal Herriko ekonomiarentzat. Beren negozioen bidez beren familiak aurrera atera eta lurraldearentzat aberastasuna sortzeko gauza izan den populazio-segmentu batetik iraupen pertsonaleko soldatekin –zenbaitetan mila eurora ere iristen ez direnekin– kontratatutako langile-segmentu batera pasatzen ari gara. Hori,



Azpeitiko Udala

gainera, lan-baldintza oker-okerrak, egun erdiko lanaldiak, zatitutako lanaldiak, jai egunetan lan egin beharra eta abar kontuan izan gabe....

Bi erakundeek badakite zein garrantzitsua den Azpeitiko merkataritzaren garapena eta lehiakortasuna babestea, eta metodo berriak eta berritzaileak sustatzeko helburua duten proiektuak bultzatzea, honen ondorio zuzena Azpeitiko eta bertako biztanleen garapen ekonomikoa, estrategikoa eta solidarioa izango delako.

Horiek horrela, parte-hartzaileek, duten ordezkartzaren arabera, bere burua lotzeko gaitasuna dute eta hori aitortzen diote elkarri; hortaz, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28. artikulua kontuan izanik, hurrengo lankidetzatza-hitzarmena gauzatzeko, hauek erabaki dituzte:

1. HELBURUA

Hitzarmenaren helburua da DENDARTEAN elkarteari 10.000 €ko laguntza izenduna ematea, 2020. ekitaldian merkataritza txikia sustatu eta indartzeko helburua duen egitasmoa bideratzeko.

Egitasmoa hitzarmenaren **Eranskin** bezala jaso da, eta bertan zehaztu dira aurtengo ekitaldian emango diren jarduketak.

Diruz lagundutako jarduera egiteko epea 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

2.- AZPEITIKO UDALAREN BETEBEHARRA

1.- Azpeitiko udalak hitzarmen honetan jaso den 10.000 €ko laguntza gauzatu du 2020ko Udalaren aurrekontuan jaso den 1100.480.430.00.01 2020 Transferentzia arruntak. aurrekontu kredituaren bidez (kontratututako teknikariaren soldata, garraio-gastu eta bulegoko materialerako kontzeptuei lotutako gastuak finantzatzeko).



2.- Horrez gain Udalak bere jabetzako lokal bat lagako dio Enparan kalea, 1ean, DENDARTEAN elkarteak bere zerbitzua eman ahal izan dezan Azpeitian (lokalak honako zerbitzuak ditu: telefono fijoak eta interneterako sarrera ADSL edo WIFI bidez).

3.- ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

DENDARTEAN Elkarteak bere gain hartzen du:

1.- Azpeitiko Udalak ekarritako funtsak hitzarmenaren bidez onartu den egitasmora bideratzea.

2.- DENDARTEAN-ek bere bulegoetako bat Azpeitian izaten jarraitzea.

3.- Azpeitiko merkataritza sektoreari aholkularitza ematen jarraitzea, asoziazioen eta merkatarien arteko kohesioan parte hartuz.

Aholkularitza jarraitua, telefonoz eta bertaratuta, merkataritza arloari. Aholkularitza eman beharreko gaien artean sartzen da, espresuki, beste esparru batzuk alde batera utzi gabe: beherapenak, likidazioak eta beste baimen batzuek, ordutegiak, merkataritza-establezimenduentzako laguntzak, formazioa...

4.- Aurrez hasitako proiektuei jarraipena ematea:

Azpeitiko bezeroen fidelizaziorako datu-basea

Azpeitiko saltokien datu-basea

Azpeitiko Udalaren eta herriko saltokien arteko bitartekaritza

5.- Azpeitiko merkataritza lan-mahaiaren koordinazioarekin jarraitzea. Azpeitiko merkataritzaren sustapena jomuga duen elkargune hau Azpeitiko Udaleko, Bertan Azpeitiko Merkatarikari Elkarteak eta DENDARTEAN-eko ordezkariak osatzen dute. Honako proiektuak nabarmendu daiteke:

- Udaberriko balkoi eta erakusleho lehiaketa
- Gabonetako erakusleho lehiaketa
- Erregetako Zozketa

6.- Eskualdeko merkataritza lan-mahaiaren koordinazioa. Iraurgi Berritzen Garapen Agentziak, Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako Udalek eta Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako Merkatarikari Elkarrekin parte hartzen duten mahaiari jarraipena emango zaio. Honako lan-lerroa landuko da, bereziki:

4.- ORDAINKETAREN BALDINTZAK:

Onuraduna izateko baldintzak: Laguntzaren onuraduna izango den DENDARTEAN Elkarrekin indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintzak bete ditu.

Ordainketa aurreratua: Kopuru osoaren ordainketa aurreratua egingo da, diru-laguntzaren helburu diren jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa delako.



Azpeitiko Udala

Laguntzaren onuradunak ez du bermerik eratu beharrik, lukrorik gabeko erakunde bat delako eta bere helburua merkataritza alorrean herriaren garapena duelako helburu.

Laguntzaren bateragarritasuna: Diruzko ekarpena bateragarria da helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administratziotatik edo erakunde publiko edo pribatutatik badatoz. Edozein kasutan, laguntza guztiak ezingo dute jardueraren kostua gainditu.

DENDARTEAN Elkarateak diru-laguntzen ikuskapenari, jarraipenari eta kontrolari buruzko araudia bete behar du, eta Udalaren diru-laguntzak kudeatzen dituzten organoek eskatutako informazio guztia eman.

DENDARTEAN Elkarateari diru-laguntza itzultzeko eskatuko zaio -diru-laguntza ordaintzen den unetik dagokion berandutze-interesarekin-, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikulutik 43.era bitartean aurreikusitako kasuetan eta baldintzetan.

5.- DIRU-LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEKO ARAUBIDEA

Diru-laguntza emateko egintzan ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatu beharko du DENDARTEAN Elkarateak, Udalaren Ekonomia Sailaren aurrean.

Diruz lagundutako jarduera egiteko emandako epea amaitu eta gehienez ere **HIRU hilabeteko epean** aurkeztu beharko da justifikazioa. Justifikatzeko epea amaituta justifikaziorik aurkezten ez bada edo nahikoa ez bada, justifikatzeko betebeharra ez dela bete ulertuko da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

Justifikazio-kontu sinplifikatuak diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko **jarduketa-memoria** bat izango du, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita, bai eta uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamenduaren 75.2 artikuluko b) eta c) eta, hala badagokio, d) letretan xedatutako dokumentuak ere.

Diru-laguntza ematen duen organoak egoki iritzitako egiaztagiriak eskatuko dizkio onuradunari, diru-laguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko.

6.- PARTE-HARTZE EGITASMOAREN ETA JARDUKETEN



Azpeitiko Udal...

IRAZKARITZA

JARRAIPENA ETA KONTROLA -UDALAREN EKONOMIA ALORREKO BATZORDEA-

Ekarpenak eskatzen dituen justifikazio baldintzak betetzearen kalterik gabe, hitzarmenaren helburu den ekimenen jarraipena eta kontrola Ekonomia batzordearen gain izango da.

7. - ARAUBIDE JURIDIKOA

Diru-laguntza hau, hitzarmen honetan xedatutakoaz gain, azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Lege horren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera arautuko da.

Hitzarmen hau Azpeitiko Udalaren Diru-laguntza Planaren baitan dago. Bere izaera diru-laguntza izenduna da, bere helburua txikizkako merkataritza dinamizatzea eta sustatzea da.

Lankidetz hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta juridikoki Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 4.1.d) artikuluan dago sartua, eta beraz, haren aplikazio zuzenetik kanpo dago.

Ondorioz, Lankidetz hitzarmen honen indarraldian sor daitezkeen auziak Administrazioako auzi-gaietarako jurisdikzioak erabakiko ditu.

8.- PUBLIZITATEA

Diru-laguntza hau Udalaren web orrian argitaratuko da gutxienez,

Eta aurretik adierazitako guztiarekin duten adostasunaren seinale gisa, agiri hau hiru aldeek izenpetzen dute, idazpuruan ageri diren tokian eta egunean.

NAGORE ALKORTA ELORZA
Azpeitiko alkatea



AMADOR VITERI AGUINAGA
DENDARTEAN presidentea